

GABONAK ATE-JOKA

Mari Domingi eta Olentzero, Eguberrietarako prest





Plaza San Martín, 6
01009 Vitoria-Gasteiz

☎ 945 004 422

✉ info@gunegasteiz.com

www.gunegasteiz.com



TERAPIAK

Logopedia
Psikomotrizitatea
Psikologia
Osteopatia
Fisioterapia

TALDE EGONKORRAK

Psikomotrizitatea
Jolas aske afektiboa
Komunikazioa eta harremanak
"Lekua eginez": familiak hazten
Gorputz osasuna eta emozioak
Erlaxazio tailerra
Ahots tailerra
Aeroyoga
Biodantza
Yoga

IKASTARO BERRIAK

GIZONAK HARREMANETAN

ABENDUAK 20

Gizonentzako bizipen eta hausnarketa taldea.
Xabier Odriozola, Terapeuta, antropologoa (Euskal Herria).
Diego De Cristobal, gizarte langilea (Euskal Herria).

HEZIKETA SOMATIKOA

ABENDUAK 26

Body Mind: gorputza ulertzen eta gozaten.
Maria Martínez, Body Mind Centering Diplomatu (Italia).

CNV KOMUNIKAZIO ENPATIKOA

URTARRILA 17

Franziska Rautenberg, Psikologa "Comunicación No Violenta" korrantea (Alemania-Euskal Herria).

TDHA, GORPUTZA HIZKETAN

URTARRILAK 31

Ikusmira berriak: bizi-moduak eta hezkuntza praktikak.
Iñigo Martínez (Euskal Herria), Filosofian lizentziatua, irakaslea, psikologia psikoanalitikoan aditua.

EDUCAR SIN CASTIGOS NI RECOMPENSAS

MARTXOAK 5-6

Laura Díaz Entresotas, Aware Parenting psikologa (Bartzelona).

HARPIDETU ZAITEZ

ALEA astero etxean jaso nahi baduzu, harpidetu zaitez. 50 euroren truke, 44 ale jasoko dituzu urtean.

www.alea.eus



Azaleko argazkia:
A. Alvarez

Alea

43. zk.



4



12



22



23

- 4 Neurrigabeko kontsumoaren aurrean, alternatibak.
- 8 Olentzero eta Mari Domingiri elkarriketa.
- 12 Haurrentzako eskaintza zabala Eguberrietan.
- 14 Iritzia: Edu Zelaieta, Itziar Rekalde, Itsasedia.

ARABAKO KUADRILLAK

- 16 Gasteiz: tranbia Zabalganara luzatzea aztertuko dute.
- 18 Aiaraldea: Eguberriak bizitzeko ohiturak, ugariak.
- 19 Lautada: baratza ekologikoak prestatuko dituzte Dulantzin.
- 20 Gorbeialdea: Murgiako turismo bulegoa, kiosko zaharrera.
- 22 Añana: urtegiko proiektu berria, gatazkatsu.
- 23 Mendialdea: eskualdeko abesbatzak elkartuko dira.
- 24 Trebiñu: euskaltzaleak, webgune berean bateratuta.
- 25 Arabako Errioxa: elikagaien bankua Eltziegion eta Lapueblan.

HAMAIIKA SALTSA

- 26 Arabako bertsozaletasuna, irratietara.
- 27 Gabonak zoriontzeko, teknologia berriak.
- 28 Postontzia eta zozketak.
- 29 Denbora-pasak.
- 30 Agenda.



Argitaratzailea
Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.

Zuzendaria
Aritz Martínez de Luna Urzelai

Erredakzioa
Anakoz Amenabar
Itsaso Estarrona Elizondo
Mirian Biteri

Komertziala
Erlantz Anda

Denbora pasak
Bagabiga

Inprenta
Bidasoa inprimatzeko zentroa

Banaketa
Bidera zerbitzuak

EGOITZA NAGUSIA
Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.
Eskola kalea, 10. 13. bulegoa,
01001. Vitoria-Gasteiz, Araba
Tel.: 945 71 60 09
info@alea.eus

Erredakzioa
erredakzioa@alea.eus

Harpidetza
harpidetza@alea.eus

Publizitatea
publizitatea@alea.eus
695 63 28 62

Publ. Gordinak: VI-32-2015
ISSN: 2386-8961

Tirada: 4.500 ale

Bultzatzaileak:



Laguntzaileak:

goiena¹¹ berria
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.aiaraldea.eus

hirinet



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua

Asteko kolaboratzaileak: Aitor Alvarez, Edu Zelaieta, Itziar Rekalde, Estribu Ugarte, Arabako Bertsozale Elkartea eta Mikel Femia (Oreka IT).

ALEA ez du bere gain hartzen IRITZIA sailean, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileak, adierazitako iritzien erantzukizunik.

Opari zahar berriak

Gabonekin batera kontsumoa halabeharrez joan ohi da eskutik, neurri gabekoa askotan; beste aukera batzuk daudela erakutsi dute hainbat elkartek eta 'kontsumo arduratsua' egiteko hainbat irizpide eman dituzte. **A.AMENABAR** GASTEIZ

Egunotako janari, apaingarri eta opari erauntsitik ihes egitea zaila bada ere, badira kontsumoa beste modu batera antolatzen dutenak. Gabonetan, urtean gehien gastatzen den garai hauetan, erosketa "arduratsua" egiten saiatzea galdegin dute zenbait elkartek eta kolektibok, eta horretarako hamai-ka bide daudela gogoratu. Bigarren eskuko jostailuen azokak, norberak opariak prestatzea edota bidezko merkataritza bermatzen duten saltokiak izan daitezke aukera horietako batzuk Olentzerorentzat.

Arabako etxe bakoitzak, batez beste, 238 euro gastatuko ditu soilik oparietan. Hari batu behar zaizkio, otorduak, loteria, apaingarriak eta apartekoak. Orotara, 640 bat izango dira bakoitzean. Kontsumo-bide Kontsumoaren Euskal Institutuko zuzendari Xabier Legarretak "kontzientzia kritikoa" izateko eskatu die kontsumitzaileei, eta modu arduratsuan, bermedun eta seguruan kontsumitzeko aholku sorta plazaratu dute. Besteak beste, aurrekontu bat prestatzeko aholkatu du, gastu muga zein den zehaztu eta erosketak denbora nahikoarekin planifikatzea. Gogoratu du, halaber, arazorik izatekotan erreklamazio orria eskatu daitekeela eta herritarren arretarako zerbitzua dutela Gasteizen -Santiago hiribidea, 11-.

Hainbat lagunek, esaterako, Gasteizen joan den asteburuan paratu zuten erabilitako jostailuen azoka aprobetxatu zuten Gabonetako azken erosketak egiteko. Udaleko Gazteria zerbitzuak antolatu-

tako zortzigarren Azoka Txiki horretan 1.200 haurrek parte hartu zuten, 11 ikastetxetako irakasle eta gurasoeekin batera. Jostailuak saltzeko saltokiak, tailerrak, Afrikako perkusioa eta kolore askotariko



Hainbat ikastola eta elkartek parte hartu zuten Azoka Txikian. | A. AMENABAR

oihalak eta erakusketak ez ziren falta izan kolorez eta elkartasunez betetako jaialdian.

Beninen, eskola

Jostailuen salmentarekin, gainera, 13.726 euro bildu zituzten, Beningo Sirarou herrixkan eskola bat eraikitzeko. "Lehen Hezkuntza sendotzea da asmoa: eraikuntza, ekipamendua eta hezkuntzarako laguntza ematea, Sirarou herriko Esteban eskolan", azaldu dute ekinaldian parte hartu duen Manuel Iradier elkarte afrikantistik.

Liburu zaharrak, urteetan gor-detako panpinak, hainbat belaunaldik erabilitako scalextric-ak eta beste hamaika jostailu aurkitu zituzten

"Egun hauetan kontsumitu behar bada bila ditzagun alternatibak, egon badaude eta"

AMANCAY VILLALBA
DESHAZKUNDEA

gurasoek, eta haur bat baino gehiagok izan zuen Olentzero heldu aurreko oparia. "Gasteizko haurrei elkartasuna zer den ikasteko aukera ona da, hori da Azoka Txikiaren baliorik handiena", nabarmendu du Kultura zinegotzi Iñaki Prusillak.

'Gutxiago kontsumitu'

Trukea eta denboraren kutzak ere izan daitezke ardurazko kontsumoa egiteko beste modu bat, Gasteizko Deshazkundera taldeko kide Amancay Villalbaren aburuz. Gaur egungo

kontsumo eredua "jasangaitza" da taldeko lagunen esanetan, ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen ikuspuntutik eta "neurriak" behar dira berehalakoan. "Gutxiago kontsumitu eta hobeto bizi. Hori da guk urte guztian zehar defendatzen dugun leloa eta, noski, Gabonetan are indar gehiagoz egiten duguna". Kontsumitzeari buruzko mezuak "basatiak" diren garai hauetan herritarrek lelo horrekin "kontzienteago" izan behar

dutela uste du. "Eta kontsumitzen bada, bilatu dauden alternatibak, egon badaude eta". Aurten ez dute prestatu, baina aurreko urteetan opariak egiteko lantegia antolatu izan dute, norberaren trebetasunak erakutsi eta askotariko apaingarriak egiteko asmoz. "Erronka txiki bat ere bada norberarentzat, bakoitzak bere lana egitea; feltro, kakorratz-lana edo tetrabrikekin egin izan ditugun hainbat lan".



Bigarren eskuko jostailu ugari saldu zituzten Iradier Arenako azokan.

A.AMENABAR

Urtarriletik aurrera,
Hirinet-ek eta ALEA-k bat egingo dute,
proiektu multimedia martxan jartzeko.

Laster Arabako albiste atari berria ikusi ahalko duzu www.alea.eus

Horren trebeak ez direnzentzat ere badira bestelako konponbideak. Medicus Mundik duen bidezko mer-

"Erosi aurretik pentsatu dezagun opari hori nondik datorren eta bildutakoa nora joango den"

CARMEN BIAIN
BIDEZKO MERKATARITZA

kataritza dendan, esate baterako, opariak bilatu zein Gabonetako otorduetarako hainbat proposamen aurki daitezke. Bertatik ere urte guztian egiten dute kontsumo arduratsua aldeko deia, baina ozenago garai hauetan. Hamarnaka boluntarioen laguntzarekin, kanpaina berezia prestatu dute egun hauetarako: "Erosi aurretik pentsatu dezagun, segundu batez, opari hori nondik datorren eta bildutako dirua nora joango den, hori baino ez", aipatu du Medicus Mundi Arabako Carmen Biainek. Giza eskubideak errespetatzea eta, besteak beste, bitartekariak ahalik eta gehien saihestea dute helburu.

Bidezko merkataritza

Gasteizko Pio XII. kalean duten denda, eskulangile txikiei ematen diet aukera euren produktuak saltzeko; hasiera batean urrutitik heltzen ziren denak, baina gaur egun badituzte Arabakoak ere: "Orain ikuspegi hori zabaltzen ari da. Izan daiteke Afrikan edo Hego Amerikan arazo sakonagoa izatea, baina hemen inguruko base-rritarrak ere badakigu nola dabil-tzan...". Garai batean, esaterako,



Carmen Biain, Medicus Mundiren Gasteizko denda.

A. AMENABAR

Txiletik ekartzen zuten ezia, baina gertukoaren aldeko apustua egin dute orain, eta Arabako eztigile bate-na jasotzen dute. "Merezi al du urru-netik ezia ekartzea? Horrek duen koste ekonomiko eta ambientalare-kin...". Horregatik, erabakia hartu dute inguruan eskuratu ezin daitez-keen produktuak baino ez dituztela ekarriko urrunetik. Kafe eta txokolate barietate ugari, fruta tropikale-ko marmeladak, eskulanak, oihalak, jantziak... Oparitarako saski bereziak ere prestatu dituzte Gabonetarako, prezio eta eskaintza askotarikoekin. "Hemen opari bat erosten duenak, nik uste, desberdin egiten du: begi-

rada etikoa da desberdintasuna", nabarmendu du Biainek.

Dendaren ohiko ordutegia luza-tzearekin batera – larunbatetan ere zabalik dute–, bidezko merkataritza egiten duten beste hainbat elkarte-ekin batera azoka paratu zuten ohiko Gabonetako Azokan, Gasteiz-ko Plaza Berrian. "Azken batean bidezko merkataritza ahalik eta jen-de gehienak ezagutzea da gure hel-burua eta horregatik elkartu gara elkarte guztiak". Gabonak ospatzeko aukera eta ikuspegi askotarikoak daudela erakutsi nahi dute kolekti-boek eta kontsumoaren "zurrunbi-lotik" ateratzeko modurik badela.



Gabonak 2015

Ab24 osteguna
Preso eta Iheslarien Aldeko Olentzero 19:00 Fuente de los Patos
Ostean Ardo Beroa Halabedi tabernan

Ab25 ostirala
Urteko Azken Ostirala 20:00 Andra Mari Zurian

Ab31 osteguna
San Silvestre Presoekin (6,5km) 18:00 Farmazia Fakultatean
Herridenda San Vicente Aldapa 2



HERRIKO DENDAK HERRIKO JENDEARENAK

Iratxeren
altzari-denda

Josebaren
gimnasioa

Aitorren
okindegia

Elsaren
fruta-denda

Lauraren
zapata-denda



Herriko dendak herriko jendearenak dira; jende **langilea**,
lana sortu eta gure kaleak **bizirik** mantentzen dituena.

HERRIKO DENDEK ZURE LAGUNTZA BEHAR DUTE, EZ HUTS EGIN

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ERIKONOMIAREN GARAPEN ETA
LEHAKORTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

IKAZKINA ETA BASERRITARRA Elkarrekin jaitsiko dira Gorbeiatik Arabako herri askotara Olentzero eta Mari Domingi. Hausnartzeko gonbidapena dakarte: "Norberak daki inork baino hobeto ona edo gaiztoa izan den". **ITSASO ESTARRONA** GASTEIZ

"Behar duguna baino gehiago eskatzen dugu"



**Mari Domingi eta
Olentzero, Durana
inguruko mendietan.**

AITOR ALVAREZ

Maitasunik gabe, triste bizi gara". Hezur-haragizko oparien garrantzia gogoraraztera etorriko dira Olentzero eta Mari Domingi Gabonetan. Lanez lepo dabilizan arren, agendan tarte egin eta Duran egin dute ALEArekin hitzordua. **Kaixo bioi. Olentzero, zu aspaldiko ezaguna zaitugu, baina Mari Domingi, zu ez zaitugu hainbeste ezagutzen. Nor zara? Mari Domingi:** Abesti bati esker hasi naiz ezaguna egiten, baina Olentzero eta biok aspaldiko lagunak gara. Elkarren ondoan bizi gara Gorbeia ren magalean. Elkarren ondoan daude gure baserriak, eta gau asko konpartitzen ditugu suaren bueltan, egunak ekarri diguna elkarri kontatzen. Kontatuko dizuet nor naizen?

Jakina.

Mari Domingi: Zugarramurdi ko emakumeen ondorengoa naiz, eta haiei zor diet, hein handi batean, dakidan guztia: euskara, sendabellar rak zelan erabili, mendien izenak eta izana... Nire arbasoek asko zekiten, egia esan.

Olentzero: Zenbat tripako min kendu dizkion Mari Domingi k Olentzerori! Hainbeste txerri jan ondoren...

Olentzero, zu lehen Mari Domingi gabe ikusten zintugun desfilean. Pozgarria al da zuretzat orain berarekin ateratzea?

Olentzero: Izango ez da ba! Zenbat aldiz esan diodan Mari Domingiri: zergatik Arabara ez? Zergatik Gasteizko kaleetara ez? Hor ikusten nuen, Bilboko kaleetan, eta Donostian eta beste ingurune batzuetan... Bazen ordua hona ere etortzeko.

Mari Domingi: Baserrian ondo nengoen, baina iaz esan nuen: zergatik ez? Joango naiz! Eta hau poza, zer jatorrak diren Arabako umeak.

Olentzero: Ez zuen sinesten Araban ere Olentzero hain maitatua zenik. Txundituta geratu zen. Nola esaten dute orain... *Flipauta* gelditu zen! Hainbeste neska-mutil Olentzeroren kanta abesten... ea animatzen diren Mari Domingirena kantatzera ere! **Olentzero, zure abestiak dio hamar txerri gazte jaten dituzula. Ez al zara enteratu aurten Osasunaren Mundu Erakundeak ohartarazi duela hainbeste txarkuteria ez dela osasungarria?**

Olentzero: Bai, bai, enteratu naiz... Tabakoarekin bezala. Honezkero ez dut tabakorik erretzen, baina pipa



Mari Domingi eta Olentzero | A.A.

Olentzerorekin hitzorduak

SOLASALEAN TXIKIA

Abenduak 18, Oihanederren:

16:30ean gabonetako apaingarrien tailerra (izena eman behar da), eta 18:30ean Olentzero eta Mari Domingirekin elkarrizketa irekia.

OLENTZERO ARRAUN THE WORLD

Abenduak 21-urtarrilak 7:

Umeen opari eta mezuak jaso eta munduko beste herrialde batzuetan banatu ditu Iñigo Iruartzak (Iru). Emaizak erakusketa batean daude ikusgai Oihanederren, eta 29an esperientziari buruzko dokumentala eskainiko dute, 19:00etan.

OLENTZEROREN POSTONTZIA

Abenduaren 14tik 23ra: Gasteizko Turismo bulegoan kokatuta, irekita egongo da 10:00etatik 19:00etara astelehenetik larunbatera, eta 11:00etatik 14:00etara jaiegunetan.

HARRERA ETA DESFILEA (24AN)

Gasteiz: Olentzerok haurrak hartuko ditu 10:00etatik 15:00etara Udaletxean; arratsaldean, desfilea abiatuko da 18:00etan, Iparralde gizarte etxetik Plaza Berriraino.

Laudio: 18:15ean La Milagrosa eskolatik.

Agurain: 18:00etan abiatuko da Senda Langarika bidetik Santa Maria enparantzaraino.

Trebiñu: Armentia ko Bentetako haurtzaindegian eta eskolan egongo da goizez; arratsalde z, Argantzunen.

Kanpezu: Kanpezuko plazan egingo diote harrera arratsaldean.

Oion: 18:00etan, ikastolatik Plaza Nagusira.

ezin dut utzi, Olentzeroren ahoko instrumentu bat delako. Kontatuko dizuet zergatik etortzen naizen hiri-ra piparekin: hainbeste kotxe eta hainbeste ke, zikinker i dexente dago airean, eta belar hezea sartzen dut pipan, aire garbiagoa arnasteko.

Eta jaten dituzun txerri guzti horiek?

Olentzero: Musikoei ere ez zaie denean kasu egin behar! Hamar txerri gazte gehiegi dira. Hala ere, Olentzero tripazalea da, eta ardoa ere asko gustatzen zaio. Arrazoi dute: ez da beharrezkoa hainbeste haragi jatea.

"Arrazoi dute, ez da beharrezkoa hainbeste haragi jatea; tabakoa ere honezkero ez dut erretzen"

Maridomingi, zure abestiak halaxe dio: 'Gurekin nahi baduzu Belena etorri, atera beharko duzu gona zahar hori'. Zer egingo duzu gonarekin, jantzi ala erantzi? Haserratzen al zaitu kontu horrek?

Mari Domingi: Galdera ona. Ni ez nago guztiz konforme nire kantarekin. Gustuko dut, baina ez daukat oso argi Belenera joan nahi dudana, eta ez zait gustatzen jartzen dizkidaten baldintzak, bestee k nahi dute-na egin dezadan. Non geratzen da nik nahi dudana? Zer arazo dago nire gonarekin? Zaharra ez: urte asko ditu! Amonaren amonaren amonaren... gona zen. Altxor bat. Ez dakizue zenbat abentura bizi izan ditugun elkarrekin. Belenera eta edonora joango naiz gona honekin. **Honezkero gutun asko jasoko zenituzten. Zer eskatu dizuete Arabako umeek?**

Olentzero: Ume guztiek urtero eskatzen dutena: jolas egiteko tresnak. Azkenaldian, tresna elektroniko asko eskatzen dituzte, horietako asko bakarrik jolas egiteko. Olentzerori hori ez zaio gehiegi gustatzen. Olentzerori gustatzen zaizkio lagunekin jolasteko jostailuak. Oraindik ere eskatzen dute pilota, baloia, soka... eta asko poztan da Olentzero. Baina zer egingo diogu! XXI. mendean bizi gara, eta teknologia hemen dugu. Ondo portatu badira, ekarriko diegu hori ere.

Mari Domingi: Denetarik eskatzen digute: gogoan duzu Izarrako Mane-

xek anai-arrebekin eta lehengusuekin jolasteko jolasa eskatu digula? Eta Bernedoko Maddik esaten zigula ez duela gustuko botilaratutako ura, eta beraz kantinplora bat nahi zuela? Oraindik ere horrelako gauzak eskatzen dizkigute.

Olentzero: Egia esango dizuet. Mari Domingi ez balitz, Olentzero buru handiak zenbat gauza ahaztuko lituzkeen!

Euskaraz idazten dizkizute gutunak? Ala baita beste hizkuntza batzuetan ere? Itzultzaileak dituzue?

Mari Domingi: Kontatuko al diegu sekretua?

Olentzero: Bai, Mari Domingi sorgin samarra bada-eta! Hizkuntza asko dakizki. Olentzerok euskaraz egiten du, eta gaztelera pixkat ere ikasi du. Gutxi batzuk idazten dizkigute gutunak gaztelera; gehienek euskaraz egiten dute.

Mari Domingi: Eta gure sekretua... galtzagorriak dira. Oso poliglotak dira, hizkuntzak oso ondo menperatzen dituzte, eta laguntzen digute.

Izan ere, gero eta gehiago iristen zaizkigu gutunak beste hizkuntza batzuetan ere, gero eta jatorri desberdineko ume gehiago daudelako gure artean.

Onak izan al gara aurten?

Olentzero: Haurrak onak izan dira! Haurrak onak dira beti. Nagusiak, aldiz... nagusiak ez zarete hain ongi portatzen.

Ikatz asko banatuko duzue?

Olentzero: Ez dakit merezi duen. Pertsona askok etxea berotzeko behar dute ikatza. Beraz, ikatza baino hobe, onena izango da ezer ez ekartzea.

Mari Domingi: Dena dela, norberak daki inork baino hobeto ona edo gaiztoa izan den. Guk, adibidez, baserrian badugu ohitura egunean zehar egin dugunari buruz hausnartzeko; emozioak sentitu, onartu eta bereiztu: hau ondo egon da, eta hau txarto. Guk badugu gaitasuna jakiteko umeak eta nagusiak on edo gaizto izan diren, baina norberak egin dezala bere hausnarketa. Oso ariketa polita da, hobetzen joateko.

Mundua dagoen moduan egonda, ez al dugu opari gehiegi eskatzen?

Olentzero: Eskatu? Orrialde osoa! Nik beti esaten diet gauza bera umeei: hiru gauzeekin nahikoa da; eta horietatik, gutxienez bat besteekin jolasteko izan dadila. Bestalde, erabiltzen ez dituzten jostailuak beste ume batzuei emateko esaten diet, bada-gelako oraindik ere jostailurik ez duen neska-mutil asko.

Mari Domingi: Behar duguna baino askoz gehiago eskatzen dugu. Ez al duzue uste amamaren irribarrean, edo lagun batekin orduak barrezka ematea, edo lehengusu-lehengusinekin jolastea opari bat dela?

Zer mezu zabalduko duzue 24an?

Olentzero: Maitasuna! Maitasuna amaxori, aitatxori. Maitasuna ikastolan. Maitasuna alde guztietan, behar-beharrezkoa delako: hori ez badugu, berehala haserratu eta triste bizi gara.

BIDEA: HIRINET.NET



**LIZARRALDE SOINUA
TXALAPARTA, S.L.**

**SOINU PROFESIONALA
MEGAFONIA**

Tel. / Fax: 945 226 977
txala@txala.euskalnet.net
01012 GASTEIZ



Baltasar, Forondan | H. ALFARO AEROKLUBA

Errege Magoak ere, prest

Abenduaren 5ean goizeko 11:00etan Gasteizko tren geltokira iritsiko dira ekialdeko maiestateak, eta Plaza Berriraino joango dira, bertan umeak agurtzeko. Ondoren, haurrak hartuko dituzte Alde Zaharreko Goiuri jauregian (Villa Suso), 12:15etik 14:00etara eta 14:30etik 18:00etara. Desfilea 19:00etan abiatuko da Bilbo plazatik, eta Gasteiz etorbidea eta Tomas Zumarragakoa dohatsua kalean amaituko da.

Confecciones Pinedo, S.L.
Euskal Jantziak

San Antonio, 11
Heraclio Fournier, 15
GASTEIZ



www.confecconespinedo.com

SOLAS ALEAN

*zatoz eta bota
zure galderra!*
**Ane
Irazabal-ekin**

DATA: urtarrilaren 7an, osteguna

ORDUA: 19'00etan

TOKIA: Oihaneder Euskararen etxea

Gidaria:



Antolatzailea:

www.oihanedereuskararenetxea.eus



OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA
GASTEIZKO BAYE ANTZERKIA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Jolasteko itsaso zabala

Itsaslapurrak izango dira protagonista aurtengo Eguberrietako Parkean, abenduaren 22tik urtarrilaren 5era Gasteizko Bakh kirol hirian. **ITSASO ESTARRONA** GASTEIZ

Jolasaren ozeano zabalean, haurrak dira kapitain. Eta oso laster, Gabonetako itsasaldian, Arabako umeek haizea alde izango dute Baskoniak antolatu duen Eguberrietako Parkean. Abenduaren 22tik urtarrilaren 5era arte, bi eta hamalau urte bitarteko gaztetxoek hogeit hamar jolas eta atrakzioetan gozatu ahal izango dute Bakh kirol hirian, pirata giroan aurtengoa.

Hiru gunetan antolatu dute jolas eskaintza: txikien gunea, kiroldegia

Ordutegia

ABENDUAK 22-URTARRILAK 5

Goizez: 10:00etatik 14:00etara.

Arratsaldez: 16:00etatik 20:00etara.

Itxita: abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean. Bestalde, 24an eta 1ean itxita egongo da arratsaldean.

Prezioa: bost euro.



niako antzinako pabilioiko kupula zaharra. Lehenengo txokoan, bi eta bost urte bitartekoentzat puzgarriak, pilota-igerilekuak eta puzzleak egongo dira, bai eta psikomotritate eremua eta margotzeko eta irakurtzeko gunek ere.

Kiroldegian, itsaslapurren portu nagusia egongo da: bertan, galeoia, piraten sukaldaritza tailerra, makillaje saioak eta birziklatutako materialekin itsas-tresnak egiteko lan-tegia eskainiko dituzte. Horiez gain, hainbat atrakzio egongo dira, tartean Bola zoroa, Sky jumping, Superpista eta Infernuko igoera.

Kupulara, txu-txu trenean

Taldeka aritzeko aukera ere egongo da, txapelketak antolatuko baitituzte Guaypaut zirkuituan. Era berean, *gamezone* gunea izango dute bideo-joko zaleek. Umeekin batera, begirale elebidunak arituko dira parkean. Musika ozen entzungo da, 4.000 watt-eko soinu ekipo baten bidez. Kupula zaharrean egongo dira atrakzio-rik handienak: Dragoi handia, Aero Baby, Scalextric eta ohe elastikoak. Bakh-etik hara hurbiltzeko, txu-txu tren jarri dute. Sarrera bost eurokoa da, eta pertsona nagusiak ezin izango dira jolas gunetan sartu, bi eta bost urteko hurrekin salbu.


impresion
arte
Serigrafia Publizitatea

Serigrafia
Tanpografia
Inprimatze digitala
Enpresa opariak



**Gabonetako eskaintza bereziak,
enpresa oparietan eta
publizitate euskarrietan**

Avda. del Cantabrico 12, Pab 26 / 01013 Vitoria-Gasteiz
Tel: 945 25 49 32 / Emaila: info@impresion-arte.com
www.serigrafia-impresionarte.es



GRAFIKOA: BASKONIA (ERRREDAKZIOAN ITZULIA)

Umeentzat ikuskizun ugari

Eguberrietako parkea, izotz pista eta Floridako jaiotzaz gain, haurrentzat beste hitzordu ugari daude Eguberrietan.

Mendizorrotzan, lau ikuskizun eskainiko dituzte: *Maya erlea*, *Kontukantari*, *Gari*, *Montxo eta Joselontxo* eta *Maria Gusarenco* Errusiako gazte-balleta. Gizarte etxeetan haurrentzat zortzi ikuskizun antolatu dituzte, **Butaka Txikia** egitarauaren baitan. Horrez gain, **Oihanederrek**, **GEUK** eta **Goianek** familientzat eskaintza antolatu dute: *Asier Kidam* magoa, *Barre laborategia* eta *Biolin* magikoa antzezlanak. **Ortzai** antzerki laborategian familientzako emanaldiak eskainiko dituzte.

EDU ZELAIETA ANTA
IDAZLEA



Fantasia

Olentzerok ekarri zuen etxera bere panpina bat lehengoan. Azken urteotan finkatutako ohitura bihurtu da gurean: abenduko zubia igaro ondoren, Olentzeroren panpina izaten dugu egongelako baztertxo batean Eguberri eguna iritsi arte, hots, ikazkin tripontziak etxekoentzako opariak ekarri arte

("eta, aita, eskuak ikatzez zikinduta, nolatan ez du ezertxo ere zikintzen?").

"Ez dago jakiterik noiz arte sinetsiko duen asmatutako fantasia"

Alabaina, opariak ekartzen lagundu behar zaio Olentzerori: jakina denez, haur askotxo daude Euskal

Herrian eta, beraz, opariak etxe bakoitzera eramateko lana ez da makala. Hori dela-eta, Eguberri egunaren aurreko bi asteetan jana uzten diogu gauero Olentzeroren panpinari. Izan ere, magia tarteko, panpinak helarazten dio janaria Olentzerori, ikazkinak behar dituen indarrak hartu eta eginbeharrak txukun gauza ditzan. Esan gabe doa aurreko gauean jarritakoa biharamunean desagertzen dela beti ("eta, aita, Olentzerok beti fruta jaten badu, guk fruta baino ez diogu ematen eta, nolatan du halako sabel-zorro handia?").

Zazpi urte ditu jada gure mutikoak. Ez dago jakiterik noiz arte sinetsiko duen asmatutako fantasia: gero eta maizago jaurtitzen dituen galdera logikoak magiaren amaiera iragartzen hasiak dira nolabait. Askok alda daitezke gauzak hemendik urte batera. Ordurako, agian, egia prosaikoa ere zabaldua egongo da gelan: Olentzerok gurasoak dira. Aurten, momentuz, sagarrak janda gizontzen segituko du Olentzerok.

ITZIAR REKALDE
IPUIN KONTALARIA



Berri onak

Aurtengo azken zutabea idazten nagoen unean Monstrenko kolektiboaren kideekin batera ari naiz asteburu honetan eskainiko dugun muntaia berri bat bukatzen. Euren esanetara, bizirik daudela sentitzeko biltzen dira, edo bizirik daudela sentitzen dutenean zutik irauteko elkar-

tzen dira. Aldi bakoitzean nahi edo behar duten antzerkia eskaintzen dute urtero Monstrenka jardunaldietan, Eguberrietako jaien inguruko egunetan.

"Migranteen arrangurak heldu zaizkit, tapoiak jarri ditudan arren"

Oihaneder Euska-

raren Etxearen eta ALEA aldizkariaren lehendabiziko urteurrenak ere ospatuko ditugu. Arte eszenikoen Baratza egitasmoaren bigarren urteurrena izango da asteburu honetan, eta hainbat ikuskizun izango dira asteburuan. Mahaia kultur gintza sustatzeko plataforma eta Eszenika elkarteak sortu dira Araban.

Eguberriari dagokion izpiritu baikor, alai eta baketsuaz ari naiz idazten, word dokumentu batean; *Deja Vu Sans* 14 letra aukeratu dut, Vivaldiren *Lau urtarok* entzuten nagoen bitartean. Hala ere, Siria, Ruanda eta hainbat lurraldetako migranteen arranguren oihartzunak heltzen zaizkit axolagabetasunaren tapoiak jarri ditudan arren. Zuwarara, Farmakonisira edo Lanpedusara heldu direnek ondo dakite bidaia guztiek ez dutela bueltarik. Musikaren bolumena igo dut.

Ospakizunak ospakizun, hilaren 18an nazioarteko migranteen eguna ospatuko dugu. On dago!

HAUTESKUNDEEN OSTEAN ITSASEGIAREN ZINTA

Hauteskunde ostean politikari guztiak irabazle, jendea lasai bete dugu gure eginbehar demokratikoa.

Hasi da paktu elkarriketa antzerkia kromo banaketa, aspertuko da aldaketaren zain dagoena.

Hauteskunde ostean galtzaileak galtzaile berriz ere.

#KlimarenBilera

Bi astetako eztabaiden ostean, Parisko Akordioa adostu dute klima aldaketaren inguruan antolatutako goi bileran; bien bitartean, milaka lagun mobilizatu dira klima aldaketari benetako soluzioak jartzearen eta eredu aldaketaren alde. **A.A.** @anamenabar GASTEIZ



Bernardo Kapanaga @tolopordo

Zure autoak lar kutsatzen badu, ez du IATa pasatzen. AEBek lar kutsatzen badute, bilerak asmatzen dira, kutsatzen segi dezaten.



Maritxirdil @maritxirdil

Multinazional kutsakorrenek babestuko dute Parisko nazioarteko klimaren goi bilera. #surrealismoa



Mikel Urteaga Azkue @nerbiox

Parisko bilkura: bertan eta denen artean hartuko direla erabakiak? Ja! Ez gara (hain) inozoak. Beharrezkoa da makro-muntaia hau?



Iñaki Petxarroman @petxarroman

#COP21-en hitz ederrez ahoa bete eta biharamunean erraustegiak, fracking-a, AHT eta beste bultzatu. Ez al da aski?



Unai Pascual @unaipasku

Paris ez zegoen prest paradigma ekonomiko berri baterako. Gizarte zibilaren presio eta mobilizaziotik etorriko da.



Jagoba Zulueta @JagobaZ

Goi-bilera aldaketa klimatikoaren harira eta zer leku gutxi hauteskunde kanpaina. #Independentzia beste eredu baterako?

ASTEKO GUTUNA

Opa-hariak

DAVID MANGANA

GASTEIZ

Ez ditu anai-arrebak gorrotatzen, baina umeak harentzat gela bat nahi du. Gabonetarako eskatu eta Eguberri egunean zer eta baloia aurkitu. "Garestia bezain ona da", esan du aitak. "Zer da Olentzerok txarto ulertu duena?", pentsatu du umeak.

Denbora pasa ahala, hurrengo gabonak zerumugan dira. Umeak gutuna idazkera dotorez prestatu du. Irrikitan dago, peluxeak eskuetan, gelaz aldatzeko prest.

Aita korridorean agertu da, berriro ere Olentzeroren bozeramaile. Gela izatearena ezinezkoa dela dio.

Gainera, kexatzen bada, baloia eramango duela esan dio.

-Baina, nik ez nuen baloia eskatu.

-Orduan, eman.

Baina aita ez da mugitu, mehatxuetan aditu.

Burua jaitsi eta gelara bueltatu da umea.

Troiako zaldiaren moduan, pozoinduta zegoen oparia onartu genuen. Kontzertu ekonomikoa baloia da. Teilatuz teiltatu joaten den baloia. Puztu eta husten dena. Anai-arreben artean, askotan, inbidiak sortzen dituen. Baina benetan nahi genuena, geure gela, korridorearen amaieran dago, hutsik. Prezioa ez da kontua, baizik eta presioa. Baloia balioa da.

Ezer ez aldatzeko

dena aldatzen dela sentitzen dugu urtero, egunero, aspaldi-aspalditik, ume zahartuak ispiluan. Eta betiko kontua agertu da gabonetako zerumugan. Ez dute Eguberri eguna ere errespetatzen eta "bezperan" jarri digute hauteskunde-eguna.

Gabonetako betiko afari-zerrenda luzea jakinda, ajearekin edo gaupasean joango gara hautesontzietara, kontzertuaren oihartzun klasiko hori ere buruan.

Nahita edo nahi gabe, geure baitan bizi den umea esnatzen da gabonetan. Ume zahartu hori nahi gabekoa da. Baina nahita hazten jarraitzen duenak asko ikasi du. Eta badaki opariek tiraka mugitzen diren gezurrezko

opa-hariak ezkututzen dituztela. Badaki ere gutunek ez daukatela baliorik. Eskatzen ez ditugun baloia, airea besterik ez.

Horregatik, korridorean dago, peluxeak motxilan, betiko ilusioa buruan, bat-batean gazte bihurtua, heldua izateko prest umea izateari utzi gabe. Baina ez dago gelara begira dagoeneko, atera baino.

"Opariak ez dira eskatzen", dio bere buruari.

"Lortzen ditugu".

Parte hartzeko:

erredakzioa@alea.eus
Gehienez, 1.500
karaktere. ALEAK
eskubidea du gutunak
laburtzeko eta HIRINET.
NET-en elkarbanatzeko.



Tranbia Zabalgana auzora luzatzea aztertuko dute

Arabatran proposamena ere mahai ganean jarriko dute, gaur egungo trenbidea erabiltzeko aukera ikertzeko

ITSASO ESTARRONA

GASTEIZ

Gasteizko mugikortasunean ate berriak zabaldu dira: Eusko Jaurlaritzako teknikariek Gasteizko tranbia Zabalgana auzora luzatzeko aukerak aztertuko dituzte, baita gaur egun trenbidea dagoen tokian aldiriko tren bat ezartzeko proposamena ere.

Udalaren oposizioak hala eskatuta egin ditu aldaketak Gorka Urtaran alkateak hasierako planteamenduan. Jatorriz, bestelakoa zen jeltzaleak Jaurlaritzarekin adostutako egitasmoa: metro arina campusera eta Salburura

luzatzeko asmoa zuten; bestalde, BRT autobus azkarrak ezarri nahi zituzten gaur egun Tuvisako ibilgailuek egiten duten linea periferikoaren ibilbidean. Era berean, bizikleta elektrikoen zerbitzua abiatu nahi zuten garraio publikoa gertu ez duten auzoetan, autobus eta tranbia geltokietara hurbiltzeko.

Aukera horiek guztiek mahai-ganean jarraituko dute orain, baina proposamen berriak aztertuko dituzte ere. Izan ere, pasaden astean oposizioak atzera bota baitzuen mugikortasun proiektu berriak diseinatzeko alkateak Eus-

ko Jaurlaritzarekin aurreikusitako hitzarmena.

Proiektuak ahalik eta adostasun zabalenetik abiatuta garatzeko, Urtaranek taldeen eskaerak hartu behar izan ditu kontuan. Lehenik eta behin, hiria gobernatzeko duen bazki-

Alkateak aldaketak egin behar izan ditu hasierako planean, oposizioak eskatuta

de nagusiaren eskaerak hartu behar izan ditu aintzat, PSErenak, hain zuzen.

Sozialistek bi baldintza nagusi jarri izan dituzte orain arte. Batetik, baztertu dute tranbiaren ordeztu Salburua auzoa BRT autobus azkarren bidez lotzea, Jaurlaritzak iradoki zuen moduan. Bestalde, metro arinaren luzapen aukeren artean Zabalganekoa aztertzea eskatu dute, oposizio-ko beste indar batzuk egin duten modu berean. Hortaz, euren azterketa lanetan auzo berria aintzat hartuko dute Jaurlaritzako ingeniariak.

Arabatran, aukera bat
2020. urtean Abiadura Handiko Trena Gasteizera iris-

artepan



Eusko Jaurlaritzak urte hasieran abiatuko ditu mugikortasuna hobetzeko azterketa-lanak. | EUSKOTREN

teko, bide berria egin behar-ko zaio, gaur egungo errailek ez dutelako AHTarentzat balio. Testuinguru horretan, Arabatran egitasmoa proposatu zuen duela bi urte EH Bilduk, gaur egungo trenbidearen korridorea tren sozial bat martxan jartzeko. Begi onez ikusi dute gainerako alderdiek, eta Jundiz eta Salburua artean ezartzeko aukera aztertzen ari da Jaurlaritzak.

Nobedadeen artean, beste bat dago: Gasteizko Mugikortasun Foroak proiektua lantzeko aukera izango du, oposizioko indar guztiek hala eskatuta. Ondoren, udal-alderdiek

Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena sinatzea adostuko dute abenduaren 23an

%65

FINANTZAZIOA

Eusko Jaurlaritzak ikerketa txostenen eta eraikuntza lanen zatirik handiena ordainduko du, %65a. Gainerakoa Arabako Diputazioak eta Udalak ordainduko dute.

ospatuko duten osoko bilkuran

Geltokiak, irisgarri

Duela zazpi urte salaketa jarri zuen Eginaren Eginez elkarteak, tranbiako geltokiek ez zutelako Irisgarritasun Legea betetzen. Duela bi urte arrazoiak eman zien Auzitegi Gorenak, eta aldaketak behar dituzten 21 geltokietan obrak egiteko txostena onartu berri du Eusko Trenek. Horrez gain, Independentzia eta Alaba Jeneralaren kaleko plataforma konponduko dute eta Loma Jeneralaren plazan buelta eman ahal izateko erraila jarriko dute.

ANIZTASUNA



Elkarteak sareak josten. | GOIAN

Etorkinen Egunerako mobilizazioa deitu dute

I. ESTARRONA

GASTEIZ

Etorkinen Nazioarteko Eguna da abenduaren 18an, ostiralean. Hori dela eta, mobilizaziora deitu dute Gasteiz Irekiak eta Arrazismoaren aurkako plataformak, *Mugak apurtuz, ateak zabaltzen* lelopean.

Arratsaldeko 18:30ean, lau abiapuntu izango ditu mobilizazioak: Katedral Berria, Foru enparantza, Aldabe plaza eta San Frantzisko aldapako *faroloia*. Hitzordurako "aniztasun oihalak" josi dituzte hainbat elkarte; horien artean daude Goian, Adsis, Adra, Saregune, Radix 2, Al Indimay, Amaru, Caritas, Animatuarte eta Talur.

2016an ere

#LanEtaBiziEuskaraz

egin nahi dugulako,

#BaiEuskarari

Ziurtagiriaren Elkarteak

baieuskarari.eus

/baieuskarariziurtagiria

@baieuskarari

Lan eta bizi euskaraz

LANsarean

bilatan

lansarean.eus

/lansarean

@lansarean

enpresarean.eus

/enpresarean

@enpresarean

Gabonak ulertzeko era asko

Eguberriak bizitzeko modu ugari dituzte Arabako herritarrek; Aiaraldea eskualdean bizi diren jatorri ezberdineko bizilagunek haientzat egun hauek duten esanahia azaldu dute. **TXABI ALVARADO** @aiaraldea AMURRIO



T. ALVARADO

DONG CHUNLIAN

TXINATARRA

"Beste data esanguratsu batzuk ditugu"

Egutegi txinatarra hemen erabiltzen denaren ezberdina da: beste data esanguratsu batzuk ditu. Urtarrilean edo otsailean hasten da urte txinatarra, hemen baino beranduago beti. Urteko lehen zortzi egunetan denda asko itxita egoten dira Txinan, eta umeek ere ez dute eskolarik. Gutxi gora behera hemen bezala ospatzen dugu, familia guztia bilduta, urte hasieratik 15 egunera, ilargi beteak dagoenean".



T. ALVARADO

FATATA MOHAMED FADEL

SAHARRA

"Mahomaren jaiotza ospatzen dugu 25ean"

Guk ez dugu ospakizunik egiten 24an, baina abenduaren 25ean Mahoma profetaren jaiotzaren urteurrena ospatzen dugu. Badugu ere urte berria ospatzeko ohitura; errefuxiatuen kanpalekue-tako zein lurralde okupatuetoako sahararrek familia giroan bazkaltzeko ohitura dute".



T. ALVARADO

DAVID HOSKING

ESKOZIARRA

"Santa Klausek umeentzat soilik ditu opariak"

Olentzeroren ordeaz, Santa Klaus arduratzten da umeei opariak emateaz. Han, Santa Klausek haurrei soilik eramaten dizkie opariak. Bestalde, 24an ez dago ezer, 25a da guretzat egunik bereziena. Familia osoa biltzen gara indioilarra bazkaltzeko, ni barazkijalea naizen arren".



T. ALVARADO

SOKHNA MARIAMA

SENEGALDARRA

"Kristauekin batera ospatzen ditugu festak"

Senegalen bertako kristauekin batera ospatzen ditugu Gabonak, kristauek gure festetan parte hartzen duten modu

berean. Gabonetako zuhaitza jartzen dugu, eta familia osoa biltzen gara bazkaltzeko. Urte berriari hasiera emateko Independentziaren Plazan bildu egiten da jendea, Dakar hiriburuan. Badaude ere hamabi mahats jaten dituzten batzuk, hemen bizi izan ondoren ohitura hori Senegalera eraman dutenak".



T. ALVARADO

ISAAC VILLABA

EKUADORTARRA

"Urte zaharrean panpinak erretzen ditugu"

Ekuadorren bada-go Gabonak ospatzeko ohitura. Makil bat xaboiarekin igurtzi egiten dugu

han, eta makilaren puntan opariak jartzen ditugu. Umeek makilan gora egin behar dute opariak hartzeko, eta labaindu egiten dira. Familiak 24an gauez biltzen dira. Gabon zaharrean, berriz, Urtezaharra irudikatzen duten panpinak ateratzen dira kalera, eta urte berria hasten denean su ematen zaie".



Araian duela lau urte hasitako egitasmoa eredu izan dute Dulantziko baratza prestatzeko. | ALEA

Ortu ekologiko saila prest dute Dulantzin

Hamabi lursail zozketatuko dituzte hurrengo astean eta 2016an hasiko dira lanean

ANAKOZ AMENABAR @anamenabar

DULANTZI

Araian duela lau bat urte hasitako bideari jarraiki, Dulantzin ere baratza ekologikoak paratuko dituzte urtariletik aurrera. Hamabi lursail zozketatuko dituzte datorren astean,

eta urte berriarekin batera hasiko dira ortuetan lanean.

Herritar ugari gerturatu da azken hilabeteotan Dulantziko udaletxera ortua jartzeko lursailik ote zen galdezka, eta eskaera horri erantzutea erabaki dute, bertako alkate Joseba Koldo Garitagoitia alkateak azaldu moduan.

"Behar bat zegoen, aisialdirako lursailik ote zen galdetu digute askok eta azkenean ia hogeik lagunek eman dute izena". Bultzalur izeneko egitasmoari

esker, Dulantziko industriagune ondoko lursaila egokitu dute, herriaren sarreran, eta beharrezko tresnak gordetzeko etxola bat eta negutegi txiki bat ere prestatu dituzte; 70 metro koadroko sei ortu antolatu dituzte, eta 75 metro koadroko beste sei. "Horrekin batera, ortu bakoitzean konpostagailu bat ere jarriko dugu, norberak konposta egin dezan".

Baldintzak

Ekologikoak izango dira baratza landutakoak, ongari kimikorik gabekoak eta energia aurrezteko lanketa ere egingo dute, alkateak aipatu moduan. Hain zuzen, hainbat lagunek baratzezaintza eta frutagintza ekologikoaren inguruko ikastaro teoriko-praktikoa egin zuten joan den udaberrian, eta beste esperientzia batzuk ere ezagutu dituzte Dulantzikoa abian jarri aurretik: "Gasteizko ortuetako proiektua ezagutu dugu eta, batez ere, gertuko duguna, Araiakoa, lau urteko esperientzia dutelako", adierazi du Garitagoitiak.

Udalerriaren errolदारिक egon eta baldintzak betetzen dituzten artean egingo dute zozketa publikoa, hilaren 22an, 20:00etan, kultur etxean.



PARRAL TABERNA

San frantzisko xabier kantoia 4, GASTEIZ

MENU BEGETARIANO ASTEAN ZEHAR

KULTUR EMANALDIAK ASTEARTERO GOSARIAK

RAZIO BEGETARIANOAK ASTEBURUETAN



Gorbialdeko Kuadrillaren turismo bulegoak Murgian egoten jarraituko du. | GORBEIALDEKO KUADRILLA

Murgiako plazako prentsa kioskoan izango da turismo bulego berria udaberritik

Lanek dirauten bitartean Oregi Etxean, Eztiaren museoan, eskainiko dute zerbitzua

MIRIAN BITERI

MURGIA

Zuiako udaletxearen erai-kinean obretan daudela aprobetxatuz, gaur egun bertan dauden hainbat zerbitzu berrantolatuko dira, eta ondorioz, tokiz aldatuko dira; tartean, kuadrillako turismo bulegoa.

Hain justu ere, udal-tertxeko beheko solairuan zegoen eta gaur egun Oregi Etxean, Eztiaren

museoan, dagoen bulegoa Murgiako plazako lehengo prentsa kioskoan izango da udaberritik, eraberri-tutako leku propio batean.

Gorbialdeko kuadrillako Ekonomiaren Sustapenaren Teknikari Oihana Martinez Errastik azaldu du orain arte gertatu den bezala, Zuiako Udalak kuadrillari utziko diola lekua akordio baten bitartez, Gorbialdeko turismo bule-

go bezala funtziona dezan. Lanei dagokionez, instalazioa birmoldatuko dela esan du, eta besteak beste, biltegia eta komun berria egingo direla. Obrek 61.843 euroko aurrekontua izango dute.

Bestalde, Martinez Errastik aipatu du Gabonetan goizez egongo dela bulegoa irekita, 09:30etik 13:30era bitartean, Eztiaren museoan.

Bulegoaren zerbitzuak

Orain arte bezala, honako zerbitzuak eskainiko ditu bulego berriak: Arreta eta kontsultarako gunea, Turismo teknikari baten ardurapean; autozerbitzuko gunea, kuadrillako sei udalerrien informazioarekin: gidak, agenda...; eta, azkenik, erakusketa gunea, bertako nekazaritza eta artisau produktu adierazgarriekin: sagardoa, gazta, ezitia edo zeramika.

BI URTE
TOMAAA!

ZATOK
OSPATZERA!

Baratza

Aldabe Plazatxo, 3 Gasteiz
www.salabaratz.com

18 **18:00**

KOLEKTIVO MONSTRENKO

"El canto del verdicillo"
+
"Infantil"

Antzerkia/Umorea

6€/8€

Miss Ovarios 33
KONTZERTUA
doan

19 **18:00**

PEZ LIMBO

"Boxers"
+
URTIXINTXANDO
"Un mar de Sueños"

6€/8€

Cogreach Aig Baile
KONTZERTUA
doan

20 **19:00**

KREGO MARTÍN

"To be continued"
+
ORGANIK
"Txapelduna"

Dantza/Euskera

6€/8€



'Etxeko epeltasunean', Zuiako Kuadrillako aurtengo argazki lehiaketaren hirugarren sariko argazki irabazlea. | IKER AIZKORBERENA

Gorbeiaz gozatzeko zazpi bisita gidatu antolatu dituzte

Eskualdeko mitologia, urtegiaren historia, Villarrealeko borroka eta Eztiaren museoa ezagutzeko aukera eskaintzen dute Zuiako Kuadrillan, besteak beste; eskaeraren araberrako bisitak ere antolatzen dituzte. ZUIAKO KUADRILLA

Eskualdeko mitologian eta kondaia magikoetan murgiltzea Murgiako kale eta txoko artean ibiliz; Arabako eraikuntza zibil garrantzitsuenetariko batera igotzea, hau da, Uribarri-Ganboako presara, eta 50 urte bete dituen urtegiaren historia eza-gutzea; Legutioko herrigunean paseatzea, Villarrealeko Borrokaren oihartzunak begiztatuz; Aramaioko bailarako – Suitza txikiko- Anbotoko dama edo Barajuengo Jauna bezalako pertsonaien kondairak entzutea; edo Idiazabal gazta, Eztiaren Museoa eta Gorbeia mendiguneko urarekin egiten den artisau-garagardoaren sekretuen berri izatea.

Era horretako zazpi bisita gidatu antolatu ditu Zuiako Kuadrillak, Gorbeia mendiko Arabako isurialdeak pilatzen duen ondare natural, historiko eta

Euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez eskaintzen dituzte bisitak, gutxienez lau lagunentzat eta 2 eta 5 euro arteko prezioan

Erreserba egiteko edo informazio gehiagorako:
945 24 38 28 / 645 84 40 87
www.gorbeiaeuskaadi.com

ko aberatsaz gozatzeko.

Gorbeia bisita gidatuen programaz ari gara, hain zuzen ere, eta Zuiako Kuadrillak jarri du martxan eskualdeko sei udalerrietan: Aramaion, Arratzua-Ubarrundian, Legutian, Urkabustaizen, Zigoitian eta Zuian.

Aipatutako bisita gidatuez gain,

aukerako bisitak ere eskatu ahal dira, interesa dutenen beharrei eta gogoari egokituak. Guztiak euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez eskaintzen dira. Gutxienez lau lagun behar dira, eta bi eta bost euro arteko prezioa daukate.

MURGIARA DISTANTZIAK*

Gasteiztik: 20 kilometro.

Laudiotik: 30 kilometro.

Aguraindik: 42 kilometro.

Trebiñutik: 40 kilometro.

Gaubeatik: 46 kilometro.

Kanpezetik: 60 kilometro.

Guardiatik: 70 kilometro.

*Murgia da Zuiako Kuadrillako herriburua.



Atiega eta Barron arteko urtegiak 56 hektarea okupatu eta lau mila milioi litro ur bilduko ditu. | PHOTO.OX

Atiega-Barron urtegia egiteko plana berpiztu dute

Hainbat urte geldi egon den egitasmoak ingurumen inpaktuaren azterketa gainditu behar du

ESTITXU UGARTE @estitxuugarte

AÑANA

Añanako sailak ureztatze-ko lau mila milioi litro ur bildu, 56 hektarea okupatu eta 182 milioi euro gastatuko dituzte. Espainiako Gobernuak eta Ebroko Ur Konfederazioak Atiega eta Barron herrien artean presa erraldoia eraikitze-ko egitasmoa berpiztu dute. Urtegi berriak bi herriak egun lotzen dituen erre-
pidea eta bertako zein ondoan dagoen Gineako nekazarien eta abeltzainen lurrak hartuko ditu.

Duela hamar urte bai-
no gehiago onartu zuten Arabako Bailarak Urezta-
tze-ko Egitasmoaren baitan jasota dago Barron-Atie-
gako urtegia baina urtee-
tan geldituta egon da. Abuztuan, baina, usteka-
bean, Espainiako Gober-
nuak berriaz abian jarri-
zuen proiektua eta admi-
nistrazio prozedurari bidea

eman zion. Alegazioak egiteko epea zabaldu dute eta horiek aztertu ondoren obrak ingurumen inpak-
tuaren azterketa gainditu beharko du.

Barron-Atiegako urte-
gia Tuesta, Villamaderne,
Espejo, Lantarón,
Armiñón, Erriberabeitia
eta Erriberagoitiko lurrak
hornitzeko erabiliko da.
Lurpeko tutueria sistema
konplexuaren bitartez Gau-
beako zenbait herritan
dauden urmael txikiagoe-
kin lotuko dute. Presaren
horma nagusia Atiega
herritik metro gutxira
eraikiko dute.

Kaltetuak kexu dira

Albisteak hautsak harro-
tu ditu bereziki Barron,
Atiega eta Gineako bizi-
lagunen artean, lurrak
desjabetuko baitzikiete
eta bertan bizi diren gehie-
nak nekazariak eta abel-
tzainak dira. Kaltetuek

informazio falta salatu
dute eta azpimarratu obra
hau ez dela beharrezkoa,
egun lurrak ureztatze-
ko eskaera oso txikia baita
eskualdean. Egitasmoaren
kontrako sinadurak bildu
dituzte dagoeneko.

Halaber, eskualdeko
bizilagunentzat oso garran-
tzitsua den errepidea desa-
gertuko dela salatu dute
eta planteatzen den alter-
natiba ez dute begi onez
ikusten. Atiega eta Barron
lotzen duen bidea maiz
erabiltzen dute Gaubeako
bizilagunek, neguan bere-
ziki, Gineako muinoa eta
Gesaltzako mendatea eki-
diteko. Errepide berria
egitea aurreikusten dute,
urtegiaren ertzetik, baina
orain baino altuagoa eta,
beraz, neguko arazoak ez
lituzke konponduko. Ikus-
teke dago Espainiako
Gobernuak urtegia erai-
kitzeko prozesua arintzen
duen edo ez.

Gaubeako kiroldegi berrirako 900.000 euro aurreikusi dituzte

E. UGARTE

URIBARRI GAUBEA

Gaubeako Udalak 2016
urteko aurrekontua
onartu berri du. Par-
tida nagusia Uribarri
Gaubean kiroldegi
berria eraikitze-
ko zuzendu dute, bedera-
tzehun mila euro hain
zuzen. Udalak obraren
%10a jarriko du, eta
Arabako Diputazioak
eta Eusko Jaurlaritzak
gainerako guztia.

Halaber, aipatzekoa
da bosgarren urtez udal
zerge-
k izoztuta jarrai-
tuko dutela. Udalak
adierazi duenez, per-
sonal gastuetan
aurreztuz lortu du udal
zergak bere horretan
mantentzea. Izan ere,
aurreko udal gober-
nuak osatu zituen hiru
udal sozietate publi-
koak desegin dituzte
diru galera handiak
zituztelako eta udal
langileen kopurua 37tik
13ra jaitsi zuten. Pole-
mika handia eragin
zuen neurriak bere
garaian, baina mila
biztanleko udalerria-
rentzat udal langile
kopurua ekonomikoki
jasanezina zela adie-
razi zuen udal gober-
nuak. Bestetik, biltzar
administratiboak
laguntzeko partida %66
igo da, 12.000 eurotik
24.000 eurora.

Kiroldegia eraiki-
tze-ko diru laguntzaz
gainera, zergek (%17),
Diputazioaren Foru
Finantziario Planak
(%15) eta Garoñako
zentralaren ondoan
emaniko diruak (%14)
osatzen dute 2016ko
udal aurrekontuaren
diru sarrera nagusiak.

Mendialdeko ahotsak elkartuko dira larunbatean

Eskualdeko abesbatzek topaketa dute larunbatean Uribarri Haranan; herrien arteko harremanak sendotzea dute helburu

MIRIAN BITERI

URIBARRI HARANA

Urteroko hitzordua da larunbatean, abenduak 19, Uribarri Haranako elizan deituta dagoena. Hain justu, Gabonen bueltan, Arabako Mendialdeko sei abesbatzek eta Nafarroako batek emanaldia eskainiko dute, 20:00etan.

Urteak daramatzate abesbatzek topaketak egiten. Kanpezuko Ortzadar Ioar abesbatzako kide Puri Txaskok azaldu du "ohi-koa" dela eskualde osotik zehar sakabanatuta dauden herri txikietan abesbatzak izatea, eta gogorarazi du 1998. urtean hasi zirela batzen. Asmoa: "Herri ezberdinen arteko harremana mantentzea; kasu

honetan, kantua erabilia". Ordutik, urtean bi bider elkartzen dira: udaberri partean, Kanpezun; eta abenduan. Azken horren kokagunea aldatzen doa urtetik urtera; aurten, Uribarri Haranak hartuko du kantaldia.

140 abeslari inguru

Honako abesbatzak izango dira bertan: Arraia-Maeztuko Mendialdeko Oihartzunak, Harana bailarako Haranako abesbatza, Antoñanako Zoila, Kanpezuko Ortzadar-Ioar, Bernedo eta inguruko herrietako Okongo Ama eta Gabonetarako elkartzen diren Durruma Kanpezu eta Santikurutze Kanpezuko



Kanpezuko Ortzadar Ioar abesbatzako kideak. | ARABAKO ABESBATZEN ELKARTEA

abeslariak osatzen duten Kanpezutarrak izeneko abesbatza. Horrez gain, ohi bezala, Nafarroako Berroeza abesbatzak ere hartuko du parte.

Denera, 30 herrietatik datozen 140 lagun inguru batuko dira. Nafarroako talde baten partaidetzaren harira, Ortzadar Ioar abesbatzako kideak nabarmendu du, "Ega errekarri esker", estua direla bi eskualdeen arteko harremanak.

Abesbatza bakoitzak bi Gabon kantu abestuko ditu; emanaldi "polita" izango dela iragarri du Txaskok, ahotsaz gain, soinu tresnak ere entzungo direlako, Haranako abesbatzaren eskutik. Kantaldia amaitu aurretik, *Adeste fideles* abestia kantatuko dute denok batera.

Kantaldia amaitzean, mahaiaren bueltan elkartuko dira abesbatzetako partaideek.

Gabon kantik Kanpezun

Abesbatzen topaketa ez da Gabonen bueltan Mendialdean izango den musika ekimen bakarra; bestelakoak ere izango dira han eta hemen. Azken urteotako ohiturari jarraituz, esaterako, Santikurutze Kanpezun *Badatoz Gabonak* izeneko Gabon kanten ekitaldia antolatu dute abenduaren 26rako. Herriko Andre Mariaren Jasokundearen elizan izango da 20:00etan.

Kanpezuko Ortzadar-Ioar abesbatzak antolatzen du kantaldia. Bertako Puri Txaskok gogorarazi du "irekia" dela emanaldia, eta, hortaz, edozeinek hartu dezakeela parte, hala nola, ume, gazte zein heldu. Gaineratu du dagoeneko zabalik dagoela horretarako izen-ematea; interesatuak asteazkena, abenduaren 23, baino lehen pasa egin behar dira herriko udaletxetik edo Erosletik.



Martxan da Trebiñuko euskaltzaleek sarean duten erakusleihu bateratua

Bi udaletako euskara zerbitzuek sortu eta kudeatuko duten webguneak barrendegiko eragileen bozgorailu bezala jardungo du

MIRIAN BITERI

TREBIÑU

Trebiñuko euskalgintza bateratzea helburu duen webgune berria du Trebiñuko Barrendegiak: www.euskaratrebinu.wix.com/euskaratrebinu. Aurrerantzean, Trebiñun euskarari dagokion guztia argitaratuko da bertan: ekintzak, batetik, baina baita intereseko berriak ere. Horrez gain, baliagarriak izan daitezken sareko tresnen linkak ere argitaratuko dira.

Trebiñu eta Argantzun-
go Euskara Zerbitzuek sortutako eta bultzatutako egitasmoa da. Barrendegiko euskara teknikari Beñat Goitiak azaldu du helburu bikoitza duela: batetik, euskararen normalizaziorako bidean lanean ari diren euskara zerbitzu, elkarte, ikastola eta herritarren erakusleihu komuna izatea du helburu. Horren harira, honakoa gehitu du euskara teknikariak: "Elkarte bakoitzak bere esparrua du sarean,



Webgune berriaren irudia. | ALEA

baina honen bitartez irudi bateratua ematea da helburua".

Elkarlanerako esparrua

Bigarrenik, Trebiñuko euskara zerbitzuaren eta gainontzeko eragileen elkarlanerako esparrua izatea bilatzen da. Eragile guztien koordinatzaile lana euskara zerbitzuaren

bitartez gauzatzen da eta horregatik zerbitzua bera izango da orriaren kudeatzailea.

Goitiak gaineratu du bakoitzak bere esparrua izaten jarraituko duela, baina "indarrak biltzeko" ahalegina egin izan dela. Horren harira, azpimarratu du euskalgintzaren esparruak oso zabalak eta

ezberdinak badira ere (hez-kuntza, kultur ekintza, administrazioa...), guztia-
ren oinarrian badagoela normalizaziorako ahalegin hori.

Agenda eta berriak

Esan bezala, barrendegian aurreikusita dauden kultura ekintzak edo euskararekin lotuta dauden ekimenak iragartzeaz gain, bertako herritarrentzat interesekoak izan daitezkeen berriak ere argitaratuko dira, hala nola, diru laguntzak, kanpoko ekintza interesgarriak, iritzi artikulak eta dokumentuak.

Euskararen inguruko edozer antolatzen duen edozein herritarrek har dezake parte horretan. Euskara Zerbitzuarekin harremanetan jarri eta hark sareratu du. Gutxisolo eta Txingoka elkar-teak, Argantzun-
go Ikastola eta bi udaletako euskara zerbitzuak dira oraingoz orriaren erabiltzaileak, baina beste edozein ere gehitu daiteke.

GABONAK

Argantzun- go eta Trebiñuko kaleetan ibiliko da Olentzero

M.B.

TREBIÑU

Bisita berezia izango dute aurten Trebiñuko barrendegiko umeek: asteartean, abenduak 22, Olentzero izango da Trebiñuko konderriko nahiz Argantzun-
go neska-mutikoak agurtzen eta gutunak jasotzen.

Orain arte hainbat herri bisitatu izan ditu ikazkinak, baina inoiz ez modu bateratuan; aurten, bi Udaletako Euskara Zerbitzuek egitarau oparoa antolatu dute. Eguerdian, 13:30ean, Armentiakoa Bentetako haurtzaindegira joango da Olentzero, eta

txikitxoekin egon ostean, 14:15ean, Trebiñuko eskolara iritsiko da; zain izango ditu ordurako bertako haurrak. Bazkaldu ostean, berri, Argantzun-
go Ikastolara helduko da; 17:30ean izango da hori. Haur eta gurasoekin batera, herriko kaleetatik ibiliko da.

Musika eskolakoak

Jarraian, 18:30ean, Txingoka kultura elkarteak

sustatutako musika eskolako ikasleek emanaldia eskainiko dute Argantzun-
go siloan; eta ikuskizuna amaitzean, opariak banatzeari ekingo dio Olentzerok. Gutxisolo euskara elkartearen eskutik, egunari amaiera borobila emateko, Kiki, Koko eta Moko pailazoek *Tururutu*, *pailazo bihurtu* izeneko emanaldia eskainiko dute, 19:30ean.



Eltziegon, gaztaina erreak banatu zituzten pasa den ostiralean. | ALEA



Galkorrek ez diren elikagaiak eman zituzten herritarrek. | ALEA

Beharra dutenak gogoan dituzte egunotan Arabako Errioxako herrietan

Eltziegon, Lapuebla de Labarcan, Oionen eta Guardian ekimen solidarioak egin dituzte

MIRIAN BITERI

ELTZIEGO

Egoera ekonomiko zaila bizi dutenekin elkartasun keinua izan dute Arabako Errioxan; horren bueltan, askotariko ekin-tza bereziak dabilta egiten egunotan eskualdean.

Eltziegon, esaterako, joan den ostiral iluntzean mugiarazi ziren. Cuadrilla de los Llenabares izeneko lagun-taldekoek gaztaina erreak banatu zituzten erraz galtzen ez diren elikagaiak eramaten zizkieten artean. Hain justu ere, dozena erdi gaztaina erre ematen zizkieten herritar horiei.

Ez da lehen aldia horrelako zerbitzu antolatzen dutela; gogorarazi dute bost bat urte edo izango direla

esandako ekimena egiten dutela, eta egun horretan jasotako guztia San Andres kofradiari ematen diotela, elikagaien bankura eraman dezaten; kofradia hori ere zeregin horretan dihardu azken asteotan.

Umeentzako produktuak

Lapuebla de Labarcan ere behar dutenei lagundu nahi izan diete. Hain justu ere, ostiralera arte, abenduak 18, umeentzako eta emakumeentzako honako produktuak utzi daitzke herriko udaletxean: 18 hilabete arteko haurrentzako elikagaiak, 2tik 5era bitarteko neurria duten fardelak, jaioberrientzako esnea, arropa eta bestelako tresnak, gerrarekin zerikusirik ez duten

jostailuak eta emakumeentzako arropa.

Pasa den abenduaren 6an egin zuten horren bueltan bilketa eguna. Goiz eta eguerdi osoa eman zuten esandako produktuak jasotzen; baina, horrez gain, bestelako ekimenak ere izan ziren: jaioberriei nahiz helduei zuzendutako bihotz biriketako erreanimazio erakustaldia egin zuten Gurutze Gorriko kideek, eta Txoripan solidarioak ere saldu ziren, 1,5 euroren truke. Egun osoan zehar, gainera, margo tailerrak izan ziren etxeko txikientzat.

Lapuebla de Labarcako alkate Maider Murillok jakinarazi du egun horretan batutakoa zein abenduaren 18ra arte jasotako

guztia, Arabako Gurutze Gorriaren bidez banatuko dela beharra duten lagunen artean. Horrelako zerbitzu antolatze ideia nondik sortu zen ere azaldu du: "Herriko neska batek, Silbia Grijalbak, neguko arropa zeukala-eta, Lapueblarekin harreman estua duten Gurutze Gorriko Txomin eta Iñakiri galde-tu zien horrekin zer egin edo nora eraman zezakeen; beraiek zituzten gabeziak azaldu zizkioten. Udalak horren berri izan zuean inplikatzeara erabaki zuen, bilketa antolatuz".

Pintxo, dantza eta loreak

Eskualdeko beste hainbat herritan ere egin izan dituzte ekimenak. Guardian, esaterako, azoka antolatu zuten abenduaren 6an; besteak beste, pintxo solidarioak saldu zituzten, eta dantza ere egin zuten; tartean, era eta txula-lai. Lortutako dirua Nepalen alde antolatzen diren ekimenetara eta Gasteizko Caritasera bideratu zen. Abenduaren 6an eta 8an, Oionen saldutako Gabon loreekin eta ziklamenekin batutakoa ere horretarako bideratu zen.



Radio Vitorian Errota irratsaioa egiten du astero Arabako Bertsozale Elkarteak; Hala Bedin, Bertxoko saioa egiten dute. | ABE

Seinalea kantuz dator

Badira urte batzuk bertsoaritzak Araban uhinetara salto egin zuela; Hala Bediko Bertxoko saioa beteranoa da; Radio Vitoriako Errota saioak hirugarren denboraldia du. Bertsoz betetzen da dila asteen bitan. **ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA** GASTEIZ

Errota izena Abel Enbeitari omenalditxo bat egin nahian jarri zioten Araban bertsozaletasuna sustatzen egindako lanagatik bezainbat bertsozaletasun hori garai hartan Radio Vitoriara eramateko egin zuen lanagatik. Aborrikanoko Errota baserrikoa da Abel, Arabako bertso-mugimenduarentzat leku garrantzitsua, eta ondo daki hori Beñat Zamalloa izen bereko irratsaioako arduradunak. Saioa 2013 Arabako Bertsolari Txapelketaren ostean abiatu zen, txapelketaren olatua aprobetxatu eta Radio Vito-

riako entzuleentzat bertso-mugimenduak dakartzan balioak komunikatzea interesgarria izan zitekeelakoan. Ezaugarri eta balio horiek auke-

ratzerako orduan, denboraldi bakoi-tza desberdin planteatu dute Errotan: "Lehenengoan Arabako bertsolariak izan ziren ardatz, eta bertsolari kopuru handi samarra elkarriketatu genuen. Bigarrenean Radio Vitoraren 80. urteurrena eta Arabako Bertsolari Txapelketa izan ziren ardatza. Hirugarren honetan bertsoaritzaren ikuspegi orokorrago bat lantzen ari gara", dio Beñat Zamalloak.

Bertsoa du ardatz, era berean, Hala Bediko Bertxokok, baina baita beste elementu garrantzitsu bat ere, saioko Gauza kidearen esanetan (anonimatua garrantzitsua da saioan): "Umorea da nagusi. Barre algara, litxarrerri, garagardo-bier eta sekzio bereziekin tartekatzen ditugu bertsoak". Saioko kideek ("Lauzpabost esatari batzen gara: Pontxo, Gauza, KuyinaKuiatto, Amume eta Mammut") asteen zehar Araban bertsoak ematen duena jaso, eta errebaso umoretsua ematen diote: "Gaur egun, teknologia berriekin, errazagoa da bertsoak lortzea. Duela 15 urte baina, bestela ziren kontuak, eta umore patateroak denbora hori bete ohi zuen. Denbora iraganik ere, hamai-ka esatari pasa dira irratsaiotik, formula ez da aldatu baina. Eta ez dugu aldatu nahi!".

Dialean

ASTEAN BITAN

Hala Bedi: asteazkenero, 20:00etan.

Radio Vitoria: ostiralean, 17:30ean.

ZorionAPP

Gabonetan, zorion mezuak ugaritzen dira. Originaltasuna bilatzen dutenentzat, mugikorrerako aplikazio ugari daude eskuragarri, eta horietako batzuen bidez bidalketak programatzeko aukera ere badago. **OREKA IT** @OrekaIT_eu GASTEIZ

MIKEL FEMIA RAMOS
Informatika ingeniaria
OREKA IT



Tradizioak guganaino ekarri ditu ohitura zahar asko. Kristau egutegi batean ego-kituta gaudenez eta abendu-
duan egonda, Gabonetako ohiturak aipatzeko une aproposa dela dirudi.

Guztiok jakinean zaudete Eguberriko urtarokak betebeharrak sortzen dizkigula, hots, enpresa eta lagunen arteko afariak, opari sortak, senideekin mahaiaren inguruan esertzea, elkar zoriontzea eta abar-rekoak. Ohikoa izaten da aipatu ditudan eta ez ditudan eginbeharrek gure buruak akitzea, konpromiso asko direlakoan.

Halere, ez da larritzekoa, esaten dutenaren arabera XXI. mendean dena posible da-eta. Sarritan denbora ezak estutzen gaituen arren, buruan ditugun eginkizun guztiak di-da batean egin ditzakegu. Nola? Ziur asko gehienok erantzuna min-gainean izango duzue: mugikorraren bitartez, noski.

Eguberriko kontuei aurre egi-teko erabiltzen den hedabide nagusia sakelako telefonoa da, ez bairik gabe. Zehazki, arreta jarriko diogu zoriontze ohiturari, eta horretarako iraganera begiratu behar dugu: nori eta nola zoriondu ez da gaur egungo kontua, zer esanik ez dago,

antzinatik datorkigun ohitura bai-zik.

Dagoeneko, maiz jasotzen ditugun zorion mezuak edukirik gabe-koak izaten dira eta bat-batean ehunka mezu jaso ditzakegu kon-promiso bat balitz bezala. Pentsa genezake zoriontzea "funsgabea"

Christmasfy Me aplikazioarekin, argazkiak Eguberrietako motiboekin apaindu daitezke

dela, munduarekin ondo geratzeko, nahiz eta benetan ez sentitu. Jaki-na, Gabonetako xarma sentitzen dutenentzat samingarria litzateke Eguberriaren benetako mamia nor-tasun gabeko zorion mezuen bitar-tez hondatzea.

Programatzeko aukera

Sentimenduak alde batera utzita, nirekin bat etorriko zarete Gabon gauean edota Gabon zaharrean hela-razten eta jasotzen ditugun mezu gehienak edozeini bidali ahal geniz-kiokeela. Horrenbestez, horren par-taide ez naizen arren, zoriontzeko

gura izugarria dutenentzat badira tresna paregabeak lagun eta ezeza-gunei mezuak era errazean hela-razteko. Mugikorrerako aplikazio askok zer, nori, noiz eta nola kudea-tzeko tresnak eskaintzen dituzte. Esate baterako, Gabon zaharreko gauerdia heldu bezain fite nahi izan beste mezu bidaltzeko agindua pro-gramatuta izan dezakezu.

Lagunei, iratxo aurpegia


Dena den, zorion mezu originalak bidaltzeko aplikazio ugari dituzue eskuragarri. Batetik, ElfYourself aplikazioa zuen lagunen aurpegia iratxo zoro batzuen aurpegien ordez jar ditzakezu, eta dantza egiten duten panpintoek. Bestetik, Christ-masfy Me edo Imake Card aplika-zioen bidez zoriondu nahi duzuen pertsonaren argazkia Gabonetako atzealde baten barruan ipini deza-kezue, mota guztietako irudi gehi-garriak erantsiz.

Azken finean, zoriontzeko kon-tu bat denez, teknologiararen onurak modu egokian aprobetxatu daitez-ke. Ez naiz oso iaioa gomendioak ematen, baina abagunea izanez gero, begiz-begi zoriontzearen alde-koa naiz teknologiarekin zorion-tzearen ordez.

Enpresa Aholkularitza Aholkularitza Informatikoa • SAP ERP • BI • CRM
Kontularitza • Nominak • Fiskalitatea Web Garapena • SEO • Hosting

oreka i.t.

Oreka Information Technologies
 facebook.com/orekait - twitter.com/OrekaIT_eu - orekait.com/blog
 orekait@orekait.com





 **945 067 219**

Zumarraren hiribidea 11 - 483 Bulegoa - Vitoria Gasteiz

POSTONTZIA

Norbaiti zure mezua
helarazi nahi diozu?
erredakzioa@alea.eus
625 231 603



GASTEIZ-MALLORCA
Sergio Menendez

"Mallorcara bizitzera joan zenetik Palmako Dukea bezala bizi da yate eta guzti! Gero Gasteiztik gutxi agertzen dela eta, harritu egiten gara... Zorionak, Menen!"



URBISO

Amaia Maraño

"Zorionak, izeba! Zure iloben partez urte askotarako! Mila esker gurekin jolasteagatik, eskolara gure bila joateagatik, hamaika bider jasateagatik! Ondo pasa eta ez ahaztu gutaz ospatzeko!"



GASTEIZ

Eider Gorospe

"Zorionak! Zenbakiz zenbaki... eta jada 5 urte beteko dituzu astelehenean, oso ondo pasa eta muxu erraldoia Asier eta Itziarren partez".



GASTEIZ

Aitor Grisaleña

"Elkar ikusten dugun hurrengoan zure urtebetetzea baino zerbait garrantzitsuagoa edukiko al dugu ospatzeko...? Hiru musu Terrilasen partez".



GASTEIZ

Jon Rejado Vigalondo

"Zorionak guapo! Korrikalari, errepostari, kazetari... la-ia lehendakari, jajaja! Primeran pasa zure egunean! Muxu handi bat familia guztiaren partez".

ZOZKETAK

Azken zozketetako irabazleak

Monolokos: Pablo Ortiz de Latierro (Gasteiz).

Errigora: Iñaki Agirresarobe Arzallus (Usurbil).

Zehaztu zozketa eta izen-abizenak:



695 63 28 62



erredakzioa@alea.eus



Ipuin sorta

Eneko Etxegarai idazlea eta Eduardo Rodríguez ilustratzaile gasteiztarren ipuin-sorta zozketatuko du ALEAK: *Ez dut txerrikume izan nahi* (argitaratu berria) *Liur azeria* eta *Puaggi!!*. Eman izena **abenduaren 21a** baino lehen. Hilaren 22an jakinaraziko diogu zuzenean irabazleari saritua izan dela.

HITZ GEZIDUNA



Eraikuntza

Itsas ur

Trebea, iaioa

Ahari zikiratua

Zuloa egin

Sakelako

Bizkaieraz, azeri

Nafarroako kontzejua

Jatorri atzizkia

Erregaia

Kontinente batekoak

*

Norat atzizkia

Joaki da

Ogi egile

Bokal mehea

Atzizki femeninoa

Uretako izaki txiki

Sexu eme

Potasioaren ikurra

Edari bizi

* Arabako ibaia

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNA

V	S	V	I	O	K	U	S
N	I	O	K	V	T		
O	N	A	D	N	I	B	A
T	R	A	I	K	U	L	A
K	O	R	I	K	U	M	U
N	I	R	A	U	Z	Z	
L	A	A	B	I			
L	A	K	R	E	S	A	L
P	E	A					

SUDOKUA

5	3	2	6	7	1	9	8	4
9	6	7	4	8	3	1	2	5
1	8	4	9	5	2	3	6	7
3	4	9	2	6	8	7	5	1
7	5	8	1	9	4	6	3	2
2	1	6	7	3	5	4	9	8
4	9	1	8	2	6	5	7	3
8	7	3	5	1	9	2	4	6
6	2	5	3	4	7	8	1	9

GOITIBEHERA

E	B	A	T	S	I	A
A	B	E	S	T	I	
B	E	I	T	A		
B	E	T	A			
E	T	A				
Z	E	T	A			
G	A	Z	T	E		
G	A	Z	E	T	A	
H	E	G	A	T	Z	A

SUDOKUA

	2	5	3			8		
				1				6
4	9	1			6			
	1			3			9	
7								2
	4			6			5	
			9			3	6	7
9				8				
		2			1	9	8	

Nola jokatu? 9x9-ko lauki honetako gelaxka hutsak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiekin; zenbaki bakar bat ere ez da bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe bieran, eta ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

GOITIBEHERA

1

2

3

4

5

6

7

8

9

Nola jokatu? Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu behar duzun hitzak.
1. Ipar EH-n, teilatu ertza. **2.** Burguko kontzejua. **3.** Ez zahar. **4.** Oihal mota. **5.** Juntagailua. **6.** Denbora, aukera. **7.** Karnata, arrainen bazka **8.** Kantu. **9.** Laburtua, ostua.

ALEA 29

"Zu zaitut lagunik onena.
Makina bat erokeria egin
ditugu...! Beti elkarrekin!" ©

Maitane




HITZAKOPARI
.com

BADAKIZU ZER OPARITU AURTENGO GABONETAN?

Esaldi hauetakoren bat, adibidez: "Maite zaitut", edo "Eskerrik asko beti nirekin egoteagatik". Edo "Barkatu", edo esatea hainbeste kostatzen zaizun hitz hori. Hona aurtengo Gabonetarako Euskaltelen gonbidapena: kontatu nahi duzuna maite duzun horri.

Sartu **hitzakopari.com** gunean, eta opari bat sortzen eta bidaltzen lagunduko dizugu.

Maite dituzunekin jarduteko minutu edo datu gehiago behar badituzu, opari emango dizkizugu.

Doakoak dira, izan ere, oparirik baliotsuenak

Sartu, eta sortu zure oparia
hitzakopari.com-en

euskaltel 

Babesle teknologikoa: 



Mendizale Eguna

Okondo. Larunbata 19, 09:00etatik aurrera. Okondo haraneko mendietatik ibilaldia eta herri bazkaria.

ABENDUAK

18

ABENDUAK

24

EUSKARAREN AGENDA

MUSIKA

Esne Potak eta Sukar Gorri

Gasteiz. Larunbata 19, 20:00etan, gaztetxean.

Luis Dorao, Salburua, Zabalgana eta Ibaiondo abesbatzen emanaldia

Gasteiz. Larunbata 19, 13:00etan, 17:30ean eta 19:30ean, Dendaraban.

Gabonetako kantaldia

Aramaio. Larunbata 19, 19:00etan. Aramaio, Legutio eta Otxandioko herritarrek.

Tutan Come On

Gasteiz. Igandea 20, 20:00etan, Gora tabernan.

Amorante

Gasteiz. Asteartea 22, 20:30ean, Parral tabernan.

HAURRAK

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Amurrio. Ostirala 18, 18:00etan, Bañueta kiroldegian. *Amalur* ikuskizuna aurkeztuko dute.

'Iraungorriko marimiri' antzerkia eta txotxongilo tailerra

Gasteiz. Igandea 20, 17:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

DANTZA

'To be continued' eta 'Txapelduna' ikuskizunak

Gasteiz. Igandea 20, 19:00etan, Baratza aretoan.

BERTSOLARITZA

Bertso saioa, haurrentzat

Argantzun. Ostirala 18, 19:00etan, Siloan. Ruben Sanchez eta Ander Solozabal bertsolariekin.

Bertso-poteoa

Elosu. Asteartea 22, 19:00etan, Oihane Perea eta Ruben Sanchezekin.

BESTE HITZORDU BATZUK

MUSIKA

Aguraingo Musika Bandaren kontzertua

Agurain. Larunbata 19, 19:00etan, Harresi aretoan.

Araiako Musika Bandaren kontzertua

Araia. Larunbata 19, 20:00etan, Andra Mari aretoan.

Soulshine Voices

Amurrio. Larunbata 19, 20:00etan, Amurrio antzokian.

Gabonetako kontzertua

Eltziego. Igandea 20, 13:15etan, San Andres elizan.

Folklore Akademiaren kontzertua

Gasteiz. Asteazkena 23, 19:30ean, Jesus Guridi kontserbatorioan.

Stone Bergas, Sagastume CO & Friends, Los Misterios eta Flesh For Cannibals

Gasteiz. Osteguna 24, 24:00etan, Hell Doradon.



Gabonetan jai!

· FAMILIA GIROAN EUSKARAZ ·



Familia ikuskizunak & tailerrak
URTARRILAK 2, 3 ETA 4, 11:00-13:00



urtarrilak 2, larunbata · 11:00

"1805"

ASER KIDAM MAGIC



urtarrilak 3, igandea · 11:00

"BARRE LABORATEGIA"

ZURRUMURRU ANTZERKI TALDEA



urtarrilak 4, astelehena · 11:00


"BIOLIN MAGIKOA"

ATEJUKA ANTZERKI TALDEA

Ikuskizunen ostean tailerrak egingo dira / 5-12 urte bitarteko umeei zuzenduta / sarrera doan lekuak bete arte

oihanedereuskararenetxea.eus
FRAY ZACARÍAS MARTÍNEZ 2, 01001 VITORIA-GASTEIZ

Laguntzaileak:



Kolaboratzaileak:



Antolatzaileak:

